

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2024ko MARTXOAREN 20ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy (19:50 arte), Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Peio Etxeleku (20:15etik goiti), Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Corinne Othatcegy (19:50etik goiti), Jean-Jacques Lassus, Maud Gastigard, Carmen Gonzalez, Peio Etxeleku (20:15 arte), Jean-François Lacosta, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Corinne Othatcegy-k Yolande Huguenard-i (19:50etik goiti); Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri; Maud Gastigard-ek Yolande Huguenard-i; Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-i; Peio Etxeleku-k Alain Boscq-i (20:15 arte); Jean-François Lacosta-k Philippe Bacardatz-i.

- Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar jauna izendatu dute saioko idazkari izateko.

19:50 arte:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak	24
Ahalorde kopurua	5
Hor ez diren kopurua	5

19:50etik 20:15era:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak	23
Ahalorde kopurua	6
Hor ez diren kopurua	6

20:15etik goiti:

Herri biltzarkideen kopurura	29
Presente diren herri biltzarkideak	24
Ahalorde kopurua	5
Hor ez diren kopurua	5

– Solasgaiak:

001 – Mediatekaren izendapena: Rosemonde Gérard.	2
002 – San Laurendi elizako organoaren finantzazio-hitzarmena.	4
003 – San Laurendi elizako organoaren erabilpen-hitzarmena.	6
004 – Chaîne Thermale du Soleil egiturak terreno bat eskura ezartzeko hitzarmena.	6
005 – Tokiko Lur Funtsen Erakunde Publikoa: Elizako plazako higiezin baten proiektua kudeatzeko hitzarmena.	8
006 – Hilerria: 4 lekuko hilobi baten eta haren monumentuaren salmenta-prezioaren finkatzea.....	9
007 – Langileria: Langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.....	10
008 – 2024ko aurrekontu-norabideak.....	10

Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2024ko otsailaren 11tik martxoaren 11ra:
 - 15 urteko kontzesioen eraberritzea (lurrean): 1
 - 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobiak): 11

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak TE 64-ri buruzko erabaki ezaz ohartarazi du. Zehaztu du merkatuak eraberritzen ari direla eta herriak jarrera bat hartu behar duela martxoaren 31rako. Alta, ez du halako erabakirik ikusten dokumentuan.

Auzapezak zehaztu du, oraingoz, komunikazioetako erabakiak soilik direla aipagai.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du erosketa-taldeko merkatuen eraberritzea egiten ari dela 2024-2028 aldirako, eta martxoaren 31rako arrapostua eman behar dela. Gainera, horri buruzko otsailaren 8ko gutun bat aipatu du.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak jakitera eman du herriak antzeko gutuna eskuratu duela Euskal Elkargotik energia erosketa-talde batean sartzeko proposamenarekin. Azken udal taldean, gehiengoak TE64rekin egotea deliberatu zuen eta martxoaren 31a aitzin jakinean atxikiko dituzte alde guziak.

001 – Mediatekaren izendapena: Rosemonde Gérard.

ERABAKIA:

Roger Barbier-ek, herri biltzarkidea eta mediatekarako delegatua, honakoa azaldu du:

Herri Biltzarrari dagokio herriko leku eta ekipamenduei izena emateko erabakia hartzea. Izendapenak bertako interes publikoarekin bat egin behar du eta zerbitzu publikoaren neutraltasun printzipioa bete behar du.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-29 artikulua arabera, «Herri Biltzarrak ditu, deliberazio bidez, herriko aferak kudeatzen».

Herri Biltzarrari proposatu dio udal mediatekari Rosemonde Gérard izena ematea.

Rosemonde Gérard 1866ko apirilaren 5ean sortu zen. Literatura munduan ezaguna zen poetak bi obra nagusi argitaratu zituen, zeinek Frantziako Akademiaren sariak ukan baitzituzten (Les Pipeaux 1889an eta l'Arc-en-Ciel 1926an).

Poesiazko sei obra argitaratu zituen bertsoetan, bi prosan eta hamahiru antzerki ere idatzi zituen, horietako bat Maurice semearekin eta bestea André de Badet-ekin.

Poeta ospetsua izanik, publikotasunetik baztertu zen eta Edmond Rostand-en Musa edo Lamina anderea bilakatu zen. 1890eko apirilaren 5ean ezkondu ziren eta bi haur ukan: Maurice (1891/1968) eta Jean (1894/1977).

Frantziako Ohorezko Legioaren Zaldun izendatua izan zen eta Femina literatur sariko epailea izan zen. 1953ko uztailaren 3an hil zen.

Herri Biltzarrak, Barbier jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, gehiengoz:

ONARTU DU herriko mediatekari Rosemonde Gérard izena ematea,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari honako erabakiaren egikaritzeko agiri oro izenpetzeko.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak deitoratu du ez baita hitzartzerik izan mediatekaren izendapena erabakitzeke, eta azpimarratu du inportantea litzatekeela emazte eta gizonen arteko berdintasun batzordeak halako erabakietan parte har dezan. Aipatu du Ospital jaunak bertako 18 emazteki aipagarriei buruz Assantza gunean egin mintzaldia eta erakusketa. Iradoki du izenaren hautatzean elkarrizketa gehiago behar izan zitekeela, eta menturaz ikastetxeen parte hartzea ere.

Robert Poulou jaunak zehaztu du iragan astean Kultura batzordea bildu zela eta izendapen horretaz eztabaidatu dela, eta bestelako proposamenik ez dela agertu. Mediateka Rosemonde Gérard izendatzearen alde agertu da, literatura munduan duen ospea azpimarratuz. Deitoratu du batzorde hartan ez baita bestelako proposamenik egin.

Nathalie Aïçaguerre andereak azaldu du martxoaren 12ko bilkura hartara berak eta Amaiak ezin izan dutela joan Baionan auziperatuak ziren militanteei sostengua adieraztea nahiago izan zutelako. Ohartarazi du halaber, mediatekaren izendapenaren gaia ez zela solasgaietan agertzen, bestela proposamenak edo oharrak egingo zituzketen.

Robert Poulou jaunak azaldu du Kultur batzordearen saio hartan mediatekaren izendapena "bestelako gaietan" azaldu zela. Zehaztu du batzorde hark ez duela erabakirik hartzen, bai ordea, Herri Biltzarrari proposamena egiten. Dolu du ez baita beste proposamenik agertu, baina berriz ere dio Herri Biltzarrak duela erabakitzen.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea urgentziarik ba ote den halako erabaki baten hartzeko.

Auzapezak ihardetsi dio ez direla presatuak baina erabakia arrats horretan hartuko dutela. Azpimarratu du Kultura batzordeko oposizioko bi kideetatik batek ezin etorria zela abisatu zuela baina besteek ez. Zehaztu du baita ere bilkuraren tenorea bi pertsona horien egutegien arabera finkatu zela. Ziorik gabea iruditzen zaio gaiaz eztabaidatu ez izana deitoratzea. Azpimarratu du herriko lekuak Rosemonde Gérard izendatzeko ideia ez dela berria, zeren jadanik izen hura agertu baitzen Behereko Plazako eskola izendatzeko. Oroitarazi du arrats honetako biltzarkideek eskubide osoz erabaki dezaketela mediatekari Rosemonde Rostand izena emateko, bereziki aurren pertsonaia hura omentzen denean. Bukatzeko, eta beste oharririk ezean, bozkatzea proposatu du.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Kanboko biztanle eta euskaldun gisa atsekabea adierazi du, emakume bakarra agerian ematen baita, nahiz eta poeta handia izan. Iradoki du lurraldean badela meritu handiko jende multzo handia. Halaber, gutxitasun konplexuzko sentipena ere adierazi du, iradokiz kalitatezko kultura ez dela baitezpada Parisetik datorren hura, baina bertan ere badagoela. Bere aburuz, aitortza hori bertako kulturari eta haren ordezkari maiz ezezagunegiei egin beharko litzaieke. Azpimarratu du iragan astean partehartzaile andana izan dela Korrikan, euskararekiko duten atxikimendua erakutsiz. Uste du mediatekaren izendapen horrekin bertako kulturaren eragile dohatsuak agerian emateko aukera bat hutsegiten ari direla.

Auzapezak oroitarazi du Kanborentzat kultura inportantea dela, besteak beste Arnaga eta Edmond Rostand aipatuz. Rosemonde Gérard-i eskainia zaion urte honetan, proposatu du mediatekaren izendapena bozkatzea.

Corinne Othateguy anderea gelatik atera da.

002 – San Laurendi elizako organoaren finantzazio-hitzarmena.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du 2021eko irailaren 29ko erabakiz, Herri Biltzarrak erabaki zuela San Laurendi elizan organo berria ezartzea. Organo berria 2024ko otsailaren 11an estreinatu zen.

Honako hitzarmenaren xedea da San Laurendi Organoaren Lagunak elkarteak Herriari emanen dion diru zamaren nondik norakoak zehaztea, besteak beste herriak organo berria eginarazteko gastuetan parte hartzeko.

Aurreikusia da San Laurendi Organoaren Lagunek 171 000 € emanen diotela herriari organo berria egiteko proiektuarentzat, honako finantzazio planean agertzen denaren arabera. Diru bilketa « Les Amis de l'orgue Saint Laurent de Cambo » webgunearen bidez egin zen.

FINANTZAZIOAK	
Diruztatzaileak	Beren gain hartu zenbatekoak
<i>Frantses estatua (FCTVA)</i>	75 356,00 €
<i>Kanboko San Laurendi Organoaren Lagunak elkarteak</i>	171 000,00 €
<i>Kanbo herria</i>	
Musika tresnaren erosteko ekarpena	149 164,00 €
Doitze lan teknikoak	31 020,30 €
Obra kudeantza	19 501,20 €
<i>Association Oloron Orgue (Clergeau organoarne truke)</i>	4 500,00 €
Orotara	450 541,50 €

Herri Biltzarrari proposatu dio hitzarmen proiektua eranskinean den bezala onartzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU eranskinean agertzen den bezala San Laurendi Organoaren Lagunak elkartearekiko organoaren finantzazio hitzarmena,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko, eta erabakiaren egikaritzeko beste dokumentu oro.

Abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak Kanboko San Laurendi Organoaren Lagunak elkarteari eman zaion dirulaguntzaz galdetu du.

Auzapezak azaldu du elkarteak diola herriari 171 000 €ko laguntza eman. Herriak ez dio elkarteari batere dirulaguntzarik ematen.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea San Laurendi Organoaren Lagunak elkarteko 171 000 € horiek soilik mezenasgotik heldu diren.

Auzapezak erantzun dio diru ekarpena ekintza berezi horretarako mezenasgotik datorrela.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du zenbatekoa hastapenetik hola aurreikusia zenetz.

Auzapezak oroitarazi du hastapenean eman zen zenbatekoan, adostu zen herriak ez zuela 200 000 € baino gehiago emanen organoarentzat. Beste galdera edo oharrik dagoenez galdetu du.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak harridura adierazi du hautetsi gisa organoaren estreinatze mezarako gomita ukanik. Paraleloan ezarri du lehenagoko Besta-Berrirako gomitarekin. Azpimarratu du elizaren eta Estatuaren (frantsesa) arteko bereizketa indarrean dela, eta ondorioz ez du ulertzen halako gomitarik ukan izana, kontuan izanik meza batera joatea eremu pribatuko ekintza dela eta herriko etxeak ez dezakeela halako gomitarik egin.

Auzapeza harriturik gelditu da Argitxu Hiriart-Urruty anderearen galderarekin. Esplikatu du mezarako gomita egin dela zeren eliza herriko ondarea baita. Zehaztu du baita ere, organoa ez dela kultueterako musika tresna soila; kultur tresna ere bada, estreinaldi eguneko arratsaldean Thomas Ospitalek eman kontzertua adibidetzat hartuz. Damutzen da gomitak sumindurarik eragin baldin badu, baina bere ustez, gomitarik egin ez izana harrigarriagoa zitekeen.

Zehaztu du norberak erabaki dezakeela mezara joan ala ez, eta iruditu zaiola bere egitekoa zela Herri Biltzarkideei gomita luzatzea, Hiriart-Urruty anderea suminduraren eragile izan bada ere.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak eskatu du etorkizunean halako gomitarik gehiago ez igortzea.

Auzapezak segurtatu du etorkizunean ere gomitak ukanen dituela, beste herri biltzarkide guztiek bezala, Kanbo herriko ondarea goraiatzeko ekitaldi ororentzat. Zehaztu du, baita ere, herri biltzarkideek gomita soila ukanen dutela, besterik gabe, eta norberak hauta dezakeela joatea ala ez.

003 – San Laurendi elizako organoaren erabilpen-hitzarmena.

ERABAKIA

Auzapezak oroitarazi du 2021eko irailaren 29ko erabakiz, Herri Biltzarrak erabaki zuela San Laurendi elizan organo berria ezartzea. Organo berria 2024ko otsailaren 11an estreinatu zen.

Herriak hautu hori egin zuen musika alorrean bereziki kultur eskaintza hobetzeko asmoarekin.

Orain, musika-tresna horren erabilpena arautu behar dugu. Horretarako hitzarmen bat idatzi dugu, Herriak, parrokiak eta San Laurendi Organoaren Lagunak elkarrekin organoaz egin dezaketen erabilera koordinatzeko.

Hitzarmenak, erabilerari datxizkion honako aspektuak jorratuko ditu: kontzertuak, errepikak, jarduera pedagogikoak, organoaren bisitak, erabiltzeko geriza neurriak, eta abar.

Herri Biltzarrari proposatu dio hitzarmen proiektua eranskinean den bezala onartzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU herriaren, San Laurendi Organoaren Lagunak elkartearen eta parrokiaren arteko organoaren erabiltzeko hitzarmena, eranskinean agertzen den bezala.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko, eta erabakiaren egikaritzeko beste dokumentu oro.

Abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

004 – Chaîne Thermale du Soleil egiturak terreno bat eskura ezartzeko hitzarmena.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Herriak bere biztanleek garraio publikoak erabiltzera akuilatu nahi ditu, eta horretarako garraio modu horren garapena eta sustapena lagundu nahi ditu.

Horiek horrela, herriak udal autobus zerbitzua mantendu nahi du eskolentzat. Herri gutxik egiten dute eskumen horren atxikitze hantua. Herri gehienek Mugikortasunen Sindikatuari utzi diote eskumena, eta horrek deialdi bidez esleitu ditu linea desberdinak, nagusiki enpresa pribatuei.

Autobus geldiguneetan aterpeak ezarri behar genituzke, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta aro txarraz babesteko.

Honela, Termen sektorean autobus-aterpea ezarri genuen Hazparnetik Kanborako noranzkoan, 10 zenbakiko departamendu errepidean. Logikak agintzen duen bezala, beste bat ezarri beharko litzateke beste noranzkoan.

Hasteko, herriak Mugikortasunen Sindikatuaren eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren onspena ukan du.

Alabaina, herria lur sail horren jabe ez denez, jabearekiko hitzarmen bat egin behar dugu, hots Chaine Thermale du Soleil egiturarekin, sarbideak, autobus-aterpearen ezartzea, mantenua eta balizko kentzea finkatzeko.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Chaine Thermale du Soleil eta herriaren arteko hitzarmena autobus-aterpe baten ezartzeko, eranskinean agertzen den bezala,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko, eta erabakiaren egikaritzeko beste dokumentu oro.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak egiaztatu nahi izan du espaloia libre geldituko dela eta aterpea egiazki terma egituraren jabegoan kokatua izanen dela, aurkeztu den planoaren arabera.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak baieztatu dio kokapena aurkeztu den planoan den bezala izanen dela. Hitzarmen bat prestatzen ari dira Chaîne thermale du Soleil egituraren baimena ukan ondotik, hain zuzen egituraren zuzendariarekin hitzarturik.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak adostasuna adierazi du autobus-aterpeentzat, erabiltzaileen onerako baitira. Galdetu du ez ote den Kanbon besterik ezartzen ahal, zeren arras guti baitira.

Auzapezak ihardetsi dio balitekeela Paskalekuko biribilgunea bukatu-eta han aterpe bat ezartzea, hala aurreikusia baitzen.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak baieztatu du Paskalekuko biribilgunean autobus-aterpeak aurreikusiak direla. Gaineratu du Pirinio Atlantikoetako Departamenduak gai horri buruzko ikerketa bat abiatu duela, eta Mugikortasunen Sindikatuak eskatu duela autobus-geldilekuak eta aterpeak ezartzea. Gehitu du ere Makeako bidearen beheko aterpea lekuz aldatzeko lanak abiatu direla, autobusen itzultzea tratatzen baitu.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbat autobus-geldileku dauden Kanbon.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak adierazi du ezin duela berehalako arraposturik eman, baina beste aldi batez emango duela erantzuna.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea proiektzioak egin diren datozen urteetan autobus-aterpeak ezartzeko, bereziki ikasleentzat eta Txik Txak joan-jinkarientzat.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak azaldu du autobus-aterpeen eskumena Eskualdetik Departamendura eskualdatu dela, eta ondotik Departamendutik Mugikortasunen Sindikatura. Haatik, ez Departamenduak ezta Mugikortasunen Sindikatuak ere ez dute eskumena hartzea onartu. Ondorioz, herriari itzuli zaio berriki, Mugikortasunen Sindikatuak uko egin dion ondotik.

Argitxu Hiriart-Urruty andereari arrapostua ez zaio komeni eta Auzapezarengandik espero du arrapostua.

Auzapezak eman den arrapostu tekniko goraipatu du eta azpimarratu du perspektiba guztiak kontuan izan behar direla. Azaldu du, artean ez dagoela aterpe berrien ezartzeko ez proiekturik ez eta planik, bereziki duten kostuarengatik. Adierazi du helbideratzeak duela lehenetsia, eta inbertsio handia suposatzen duela besteak beste panelak eta plakak erosteko. Bukatzeko, baieztatu du ez dagoela autobus-aterpeen ezartzeko programaziorik.

005 – Tokiko Lur Funtsen Erakunde Publikoa: Elizako plazako higiezin baten proiektua kudeatzeko hitzarmena.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du Ipar Euskal Herriko TLEParen Administrazio kontseiluak 2023ko irailaren 21ean erabaki zuela etxebizitzarako eraikin baten eskuratzea, lehentasunez erosteko eskubidea baliatuz, Kanboko elizako plazako 5 eta 7. zenbakietan kokatua dena.

Eskuratze horri esker herriko ondarea gerizatu eta balioan ezartzen ahalko da.

Eskuratze horrekin hitzarmen bat egin izan da Ipar Euskal Herriko TLEP eta Kanboko herriko etxearen artean ordezkapen baldintzen zehazteko eta ondasunaren kudeaketa eta atzera-itzultze modalitateen finkatzeko.

Herriaren helburua eta eskuhartze testuingurua kontuan izanik, 12 urteko ordezkapen bat proposatu da, urteko sari egonkorrekin eta honela kalkulaturik: urtean ordaintzeko gelditzen den kapitalaren gaineko % 1 ZK.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU « 5-7 place de l'église BA 106 à 109, 113, 114 et 116 » ordezkapen-hitzarmenaren xedapenak non zehazten baitira Ipar Euskal Herriko TLEPekiko lankidetzaren baldintzak,

ONARTU DU BA 106 à 109, 113, 114 eta 116 lur sailen eskuratzeko ordezkapena, 12 urtez urte-sari egonkorrekin, % 1ean ZK,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erabaki horren egikaritzeko behar diren dokumentuak izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak Auzapezari azalpenak galdetu dizkio higiezin horren erosteko egin zen milioi bateko maileguaz, zeina kontu batean ezarri omen baita eta iaiztik etekinak eman baititu. Ez du ulertzen zergatik TLEParen ordezkapena baliatzea erabaki den higiezin horren erosteko, eta ondorioz galdetu du zertarako balio zuen egin zen mailegu hark.

Auzapezak erantzun dio TLEParen ordezkapena baliatzea erabaki zutela higiezinaren prezioa negoziatu ahal izateko, kontuan izanik ondasunaren egoera kaxkarra eta parkean egin beharreko eskuhartzeak. Honela eginez jabeekiko negoziazioak errazagoak dira. Etapa hori bukatu-eta, herriko etxeak denbora hartuko du ikusteko eta opzioa atxiki ala utzi behar den erabakitzeko. Gainera, ordurako hirigintzari buruzko informazio gehiago eskuratua izanen da, TLEPak gai horretan jadanik egin duen lanari esker.

Jean-Noël Magis jaunak azpimarratu du TLEPak Fagalde eraikinean den alokatzailearen presentzia kontuan izan behar duela eta ondorioz harentzako beste etxebizitza bat atzeman beharra. Baieztatu du TLEP egitura egokia dela herriko etxea urraspide horretan laguntzeko.

Philippe Bacardatz jaunak arrangura adierazi du milioi bateko maileguaren erabilpenaz.

Auzapezak azaldu du milioi bateko mailegua eperako kontu batean ezarri dela eta 20 000 €ko etekina emanen duela

Philippe Bacardatz jaunak zalantzan ezarri du orain dela bi urte mailegu horren egiteko urgentzia.

Auzapezak ihardetsi dio bi urte lehenago egoera diferentea zela. Orduan, ondasuna zuzenean eskuratu behar zuten ilobekin solasten ziren. Gero, trantsizio garai bat iragan da ilobekin eta Capuçon Fundazioa proiektuarekin. Azkenik, familiak gibel egin du eta oinordekoek ez dute adostasunik lortu bi lehengusuei kalte ordainak ordaintzeko eta berriz kokatzeko. Horregatik herriak erabaki zuen mailegua egitea tasa interesgarri batean.

Beaulieu proiektuarekin bezala, Jean-Paul Alaman jaunak bere adituria proposatu du herriaren proiektu horrentzat. Oposizioan izanik ere, Kanborentzako interesgarriak diren proiektuetan ekarpenak egiteko prestutasuna adierazi du. Eraikinaren eta inguruneen potentzialtasuna azpimarratu du, baita oinezkoen eremuan duten eragina. Proiektu horretarako batzorde baten parte hartzeko eta eraikinaren hobetzeko gogoetetan parte hartzeko prestutasuna adierazi du.

Peio Etxeleku jauna gelan sartu da.

Auzapezak Jean-Paul Alaman jaunaren eskaintza aintzat hartu du. Ohartarazi du batzuetan gai horietan ez dutela ikuspegi bera. Uste du menturaz Fagalde proiektua Beaulieu-koa baino sinpleago izanen dela, nahiz jadanik aurreikusi duten Hazparnetiko sarbidearen antolamenduari buruz elkarlanean aritzea.

006 – Hilerrria: 4 lekuko hilobi baten eta haren monumentuaren salmenta-prezioaren finkatzea.

ERABAKIA:

Auzapezak biltzarkideei jakinarazi die, 2020ko ekainaren 11ko erabakia kontuan izanik, Herri Biltzarrak Auzapezari aitortzen dizkion delegazioei buruzkoa, 2024ko otsailaren 12ko 3633 zenbakiko itzulketa-egintza bidez C sekzioko 3. lerroko eta 12. zenbakiko kontzesioaren (lau lekuko hilobi eta monumentu batez osatua) doako itzulketa erabaki zuela.

Honela, lekua urririk itzuli zaio herriari, zeinak beste norbaiti esleitu diezaiokeen, jakinez hilobiak gorpuzkinik ez duela gehiago eta monumentuan identifikazioa ahalbidetuko lukeen idazkun oro ezabatuko dela.

Hilerrietako kontzesioen eta ekipamenduen xede-aldatzea dela-eta, eta Frantziako LKKOko L. 2 223-13 artikulua eta estatu hartako barne ministroaren 1993ko urtarrilaren 28ko 93-28 C zirkularra, Estatu Kontseiluaren iritzia ondotik hartutakoa, herriariak itzuli zaizkion hilobiaren eta monumentuaren salmenta prezioa erabaki behar da.

Kontuan izanik:

- ✓ jatorrizko kontzesiodunak lau lekuko hilobiaren erosteko ordaindu zuen prezioa (3 328 franko) gaur egun, inflazioa eta moneta-higadura kontuan izanik 1 627 € ematen duena;
- ✓ hilobia oso egoera onean dela eta granitozko monumentua er oso egoera onean dela (berriaren prezioa gutxienez 1 500 €);
- ✓ harria leuntzeko lanak monumentua anonimizatzeko (gutxi gorabehera 650 €)
- ✓ monumenturik gabeko lau lekuko hilobi berri baten prezioa: 3 400 €;

Lau lekuko hilobia eta monumentua 3 000 €tan saltzea proposatu da, zerga guziak barne.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

HONELA FINKATU DU:

Lau lekuko hilobia eta monumentua 3 000 €tan zerga guziak barne.

BAIMENA EMAN DIO

Auzapezari horretarako izapide oro egiteko eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko.

007 – Langileria: Langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.**ERABAKIA:**

Auzapezak oroitarazi du 2024ko martxoaren 11ko gutun bidez, Euskal Hirigune Elkargoak eskatu duela Kanboko herri-langile baten Elkargoaren eskura ezartzea luzatzea, 2024ko uda-denboraldian Kanboko elkargoaren igerilekuko inguruen eta aldagelen mantenua egiteko eta igerilekuaren mantenu teknikoa egiteko.

Honakoak dira eskura-ezartze horren baldintzak:

- Herri-langile bat Euskal Elkargoaren eskura ezartzea 2024ko apirilaren 22tik urriaren 20ra, orotara 718 orenentzat,
- Euskal Elkargoak Kanbo herriari ordainduko dizkio langile horrek Euskal Elkargoarentzako egin orduei dagozkien soldata eta kargak.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO

Auzapezari herri-langilea Euskal Elkargoaren eskura ezartzeko hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala, baita erabaki horren egikaritzeko beste agiri oro.

008 – 2024ko aurrekontu-norabideak.**ERABAKIA:**

Aizpuru andereak, lehen auzapez ordea, azaldu du lurralde kolektibitateen ekintza urteko aurrekontuaren bozkarekin baldintzatua dela nagusiki, baina hainbat erabakik baldintzatzen dutela aurrekontuen zikloa.

Ziklo horretako lehen etapa, aurrekontu norabideen txostenaren aurkezpena izan ohi da.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua araber, 3500 biztanle eta gehiagoko herrietan, aurrekontuaren norabide orokorreari buruzko eztabaida antolatu behar da, aurrekontu hori bozkatu baino lehenagoko bi hilabeteko epean.

Hasierako aurrekontua nola egien den ongi ulertzeko, aurkeztuko den txostenak honako elementuak eman beharko dizkie biltzarkideei: Frantziako datu ekonomikoen bilakaera, frantses estatuaren norabideak tokiko sektore publikoarentzat, hiriko finantza egoera, aurreikusten diren aurrekontu oreken ikuspegia, eta gastu nola sartzetako postu handietan aurreikusten diren aldaketa nagusiak. Aurreikusten diren urte anitzeko engaiamenduak eman behar ditu eta biltzarrari herriko zorraren egitura eta kudeaketaren berri eman behar dio.

Txostena, araudian finkatu baldintzetan eztabaidatu behar da Herri Biltzarrean. Herri Biltzarraren erabaki berezi batekin eztabaida egin denaren aitorpena egiten da Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2312-1 artikulua finkatu bezala.

2016ko ekainaren 24ko 2016-841 dekretua segituz, txostenak funtzionamendu eta inbertsio ataletako gastuen eta sartzeen bilakaeren aurreikuspena eman behar du, baita aurreikusten diren bilakaera hipotesiak aurrekontu proiektuaren eraikitzeke.

Aizpuru andereak aurrekontu norabideen eztabaida aitzin egin txostenaren berri ukan eta,

Herri Biltzarrak, aurrekontu norabideak eztabaidatu-eta

AITORTZEN DU, aho batez 2024ko erabaki berezi gisa, Aizpuru andereak, lehen auzapez ordea, aurrekontu norabideen txostena aurkeztu duela eta horren inguruko eztabaida izan dela. Txostena honakoari erantsia zaio.

Eliane Aizpuru andereak aurrekontu norabideei buruzko eta zorraren egitura eta kudeaketari buruzko txostena aurkeztu du. Dokumentuak bost zati ditu: testuinguru orokorra, frantses estatuko 2023-2027 programazio legea eta 2024ko finantza legea, herriaren diru egoera, 2024ko aurrekontu norabideak, hilobien aurrekontu erantsia, bestelako eranskinak.

Zehaztu du frantses estatuan hazkundera %1,40ekoa eta inflazioa %2,630ekoa liratekeela (2023 %4,90 zelarrik).

Frantziak 2023ko abenduaren 19an onetsi zuen 2024ko finantza lege proiektua aurkeztu du, honakoak azpimarratuz:

- Funtzionamenduko Zuzkidura Orokorren (FZO) emendatzea;
 - Energia-inflazioa borrokatzeke zenbait mekanismoren luzapen partziala;
 - «zuzkiduren berdetzea»;
 - BEBZ (Bigarren Etxebizitzen gaineko Bizitegi Zerga) eta JEFZ (Jabego Eraikien Funtz Zerga) tasen deslotzea, eta profesionalen alokairu-balioen eguneratzearen gibelatzea;
 - 3500 biztanletik gorako herri guzientzako aurrekontu berde bat ukateko obligazioa.
- 2023ko funtzionamendu atala etekin, karga eta bariazioetan banatzen da.*

2022ko ratio nagusiak, biztanleko funtzionamenduko gastu eta sarrera errealei dagozkienak, Pirinio Atlantikoetako eta Frantziako hein bereko herrien batezbestekoarekin alderatuko dira. 2023ko abenduaren 31an, kapitaleko zorra 3 764 565,26 €koa zen, hots 556 € biztanleko, Frantziako eta Pirinio Atlantikoetako izari bereko herrien batezbesteko zorpetzetik doi bat beherago.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du aurrekontuen prestatzeko prozedura oraindik bidean dela. Honako txostenean aurkeztu diren zenbatekoak gastu eta sarrera aurreikuspenak dira, izan funtzionamendu atalean nola inbertsioetakoan. Aurreikuspenok aurrekontua bozkatu arte doituko dira, onetsiko diren hipotesien arabera.

2024ko aurrekontuen norabide orokorrek honako joera politikoak dituzte kontuan hartzen:

- Zerga tasei inflazio aurreikuspena aplikatzea: tasa %2,60ez emendatzea proposatzen da.
- BEBZ (Bigarren Etxebizitzen gaineko Bizitegi Zerga) tasari 2024ko finantza legearen 151. artikulua aplikatzea, hots +0,839 puntu.
- Inbertsio egituratzaileen urte anitzeko programa bat garatzea, herriko politika publiko ambiziozkoaren arabera.

Bistan da, honako norabideak nazioarteko eta bereziki Frantziako testuinguruaren menpe izanen da.

Ondotik, 2024ko aurrekontu norabideak, funtzionamendu eta inbertsio atal bakoitzeko zehaztuak dira.

Funtzionamendu sartzeen eta hauen bilakaeraren estimazioari esker, 2024ko aurrekontuen orekatzeko jokagaiak hauteman ditzakegu.

Tokiko zuzeneko zergen sartzeak, jada aipatu zerga-tasen %2,60eko emendatzea kontuan hartuz estimatu dira, BEBZ + 0.839

Beste zergak, kontuz kontu estimatu dira, 2022 eta 2023ko gauzatzeen arabera.

Aurrekontu norabideen gaur egungo egoeran, funtzionamendu atalari dagokionez, 2024ko sartze errealak 8 085 000 €tan aurreikusten dira, eta gastu errealak 7 715 000 €tan.

Inbertsioen atalari dagokionez, 2024rako aurreikusten diren sartze errealak 5 125 000 €koak lirateke, eta gastu errealak 5 495 000 €koak.

Aizpuru andereak 2024ko ekipamendu gordin nagusiak, programa baimenak eta ordainketa kredituak zehaztu ditu, (Haurtzain auzoko argiteria publikoaren eraberritzea, San Laurendi elizako organoa, Tenis estaliak, Arnaga: aitzinaldeen margotzea, Eskolen karrika - sareen lurperatzea, argiteria publikoa, zelai sintetikoa, harmailen antolatzea, Arnaga (Laranjategia eta Zalditegia), pilotaren egoitza, petanka zelaiaren estaltzea, ezker paretaren berroneratzea, lau udal-eraikinen eraberritze energetikoa, eskola patioa, bizikleta plana, Albeniz biribilgunea; baita urteroko inbertsioak ere, bereziki errepide lanak, auzo bilkuren lanak, Andere Mariaren eremuko ORT, udal-eraikinetako lanak, errepideko seinale-argiak, coworking digitaleko gela eta herriko eraikinetan egiten diren lanak, zerbitzu teknikoentzako material erosketak).

Funtzionamendu ataleko hilobien aurreikuspen aurrekontuaren xehetasunak eman dira, baita eranskin guztiak ere (ratioak, finantza eskuhartzeak, fiskalitatea, salneurriak, eman diren dirulaguntzak, elkargoaren konpentsazioak eta 2024-2030 zorra).

HITZ HARTZEAK:

Peio Etxeleku jaunak barkamena eskatu du berantagatik, lurralde bilkura batean baitzen. Zehaztasunak galdegin ditu langileria gastuen 300 000 €ko emendatzeaz, eskritura aldaketa bati edo esleipen aldaketari zor zaion galdeginez.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du, 300 000 €ko emendatzea kontularitza-planaren aldaketaren ondorioa dela. Hasieran aisialdi zentroko gastuak 611 kontuan sartzen ziren, baina orain 662 kontua (azpi-kontratatzea) 2023ko administrazio kontuan. Aldaketa hori eztabaidatu zen administrazio kontuarekin batera.

Peio Etxeleku jaunak galdetu du ea kontularitza-planaren aldaketari eta gastuen esleipenari buruzko informazioa iaz ezaguna ote zen, hots aurrekontua osatu zenean.

Eliane Aizpuru andereak ezetz; iaz informazio horren berririk ez zen. Aldaketa 2023ko abenduan egin zen aurrekontuan, DM1ean, bozkatutako aurrekontuari 290 000 € gehituz. Iaz gastuak 300 000 €tan estimatu ziren, 298 000 €tan kokatu eta aurten 316 700 € aurreikusten dira.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du kontularitza aldaketak finantza-ratioak doi bat okertzen dituela. Gehienetan, langileria gastuen eta funtzionamenduko gastu errealen arteko ratioak, neurri bertsuko herrietan, Frantzia mailan eta Pirinio Atlantikoetako departamenduan egonkorrak izan ohi dira. Iradoki du interesgarria litzatekeela ikustea ea kontularitza aldaketa horrek eraginik izan ote duen, zeren oraingo inpresioa baita lehen biziki eraginkorra zen herria jada ez dela hain eraginkorra.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du ez dakitela beste herrietan nola tratatzen dituzten gastu horiek. Galdegin zaie kontularitzan aldaketa egitea, baina ez daki beste herri batzuek Kanbok bezala egiten zutenez lehenago.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du lehen Kanbok finantza-ratio bikaina zuela. Aitortu du zorra aurten egin diren inbertsioengatik emendatu dela, eta horrek behin-behineko bizkortzea eragin izana. Alabaina, baikor agertu da etorkizunean lehengo finantza-bikaintasunera itzultzeko aukerez.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du langileria gastuek funtzionamenduaren %51,04 hartzen dutela, non eta iaz maila bereko herrien batezbestekoa % 57 zelarik. %0,80ko bariazioa ez da esanguratsua.

Peio Etxeleku jaunaren aburuz, maila berekoen aldean herria positiboki kokatzen zela. Ohartarazi du, Pirinio Atlantikoetako Departamenduan langileria gastuak %57,92tik %57,16era pasatu direla, apaltze txiki batekin, eta Frantzian egonkorra izan dela (%58,01tik %57ra), baina aldi berean herriaren ratioa emendatu dela.

Auzapezak azpimarratu du herriak bere zerbitzuak asko berrantolatu dituela eta langile anitz kontratatu. Berretsi du langileen kontratatze egin den indarra aitortu behar dela.

Peio Etxeleku jauna ados da, baina azpimarratu du arretaz segitu beharreko gaia dela.

Auzapezak gai guztiak direla hurbiletik segitzekoak, zeren maniobra-marjina biziki txikia baita.

Peio Etxeleku jaunak ohartarazi du aitzineko urtean bezala aurrekontu-proiektzioek ez dituztela kontuan hartzen oinarri fiskalen bilakaerak, nahiz eta jakin aurki gertatzekoa dela.

Eliane Aizpuru andereak aitortu du kontziente direla oinarri fiskalak alda daitezkeela, baina ez dira segur gertatuko denik.

Peio Etxeleku jaunak erran du badela zintzotasun gai bat kontuan hartu beharrekoa.

Auzapezak ez du zintzotasunaren gaira itzuli nahi eta arrats guztia horren inguruan jardutea. Eskatu du kontuak nola eginak diren ulertzen saiatzea.

Peio Etxeleku jaunak oroitarazi du egiten ari diren elkarrizketa eztabaida bat dela.

Auzapezak azaldu du 1995etik horrela egin dutela eta hala segitzeko asmoa duela: aitzineko urteko oinarriak atxikitzen dituzte, jakinez aldaketak gerta daitezkeela. Aldaketa-erabakiak baliatzen dituzte doikuntzak egiteko, izan karga gehigarriak lausotzeko nola inbertsio berriak txertatzeko. Aurten, tasen bilakaera %2,60koa da.

Peio Etxeleku jauna ohartu da sarrerren bilakaera egiazki izango dena baino txikiago aurkeztu dela, zergen emendatze bat justifikatzeko asmoz.

Peio Etxeleku jaunak oroitarazi du larunbatean elkargoko aurrekontua bozkatuko dutela...

Auzapezak Etxeleku jaunari hitza moztu dio bakoitza libre dela Elkargoan bere ekintzen egiteko, eta bere iritzia ukateko, baina herriko etxean beti segitu izan dutela metodo berezi hori eta hala segituko dutela.

Peio Etxeleku jaunak adierazi du ezin badutela galderarik egin eta iritzi diferenterik ukan, hobe hastapenetik erraitea eztabaida segidan bukatzeko.

Auzapezak erantzun du Etxeleku jaunak baduela mintzatzeko eskubidea, baina berak ere baduela erantzuteko eskubidea. Azpimarratu du beti metodo bera segitu dutela aurrekontua osatzeko, eta hori ez dela zintzotasun falta. Ohartarazi du Etxeleku jauna haien aldekoa zela, eta orduan ez zuela praktika hori zalantzan ezartzen. Etekinak edo sarrerak beti hipotesia ezkorrekin estimatzen dira, kargak edo gastuak, ordea, modu baikorrean. Azpimarratu du administrazio-kontua hestean, gehienetan funtzionamenduko gastuak aurreikuspenen heinekoak direla, baina sarrerentzat kontrakoa, kideek erregularki ohartarazten dutenez.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du aitzineko urteekiko diferentzia dela inflazio tasa altuagoak ditugula eta oinarri fiskalen dinamikak aitzineko urteetan baino nabarmenagoak direla. Zehaztu du inflazioak azken bi urteetan oinarri fisikaletan izan duen eragina aitzineko 6 edo 7 urteetako baino aise handiagoa dela. Ordura arte ez du gaia aipatu zeren eragina ez baitzen hain aipagarria.

Amaia Beyrie andereak fluidoetarako buruzko galdera egin du, beherakada handia izan dela ohartaraziz.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du egia dela fluidoetarako gastuetan beherakada izan dela. Urari dagokionez, 162 000 € gastatu dira 191 500 € aurreikusi zirelarik, ondorioz, orain 170 500 € aurreikusten da, hots aurreikusia baino 21 000 € gutxiago. Elektrizitateari dagokionez, 253 000 € gastatu dira 394 000 € aurreikusi zirelarik, ondorioz, orain 220 000 € aurreikusten da. Gasaren gastua 65 000 €tik 50 000 €ra jaitsi da. Zehaztu du TE64-k %15eko beherakada aurreikusten duela, espero ez zen prezioen apaltze baten ondorioz.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea beherakada prezioen gorabeherari soilik zor den ala egin diren aurrezpenei ere zor ote zaion.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du aurrezpenek ere eragina badutela. Haatik, zehaztu du zaila dela oinarritzko eragina eta prezioen eragina bereiztea. Kontsumo datuen biltzeko ahaleginetan ari dira, kontsumoen historia konparatu ahal izateko, baina orduko ez dutela erreferentziazko oinarriarik. Gehitu du argiteria publikoa gauaz itzaltzeak aurrezpenak eragin dituela.

Amaia Beyrie andereak iazko eztabaida bat aipatu du eta iradoki du menturaz aurrekontua bozkatuko den saiorako kontsumoen bilakaera-datuak ukaten ahalko dituztela.

Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio ez dutela kontsumo daturik, gastuen datuak baizik ez dituzte.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak azaldu du TE64-k tresna batzuk garatu dituela, eta horiekin hornidura puntu bakoitzaren kontsumo-datuak ukan ditzaketela.

Auzapezak azpimarratu du etengabeko erronka dela eskatzen zaizkien datu horiek ematea, eta ez dela engaiatuko horien ematera. Erran du kontagailu eta datu andana badela aztertzeko. Iaz aipatu izan zen horretarako langile bat kontratatu beharko litzatekeela. Bere buruari galdetu dio ea beste herriek ere zailtasun bera dutenetz. Zehaztu du ez dituela pertsonak edo zerbitzuak kritikatzeko. Ohartarazten du, besterik gabe, datu horien ukatea zaila dela, urtero ber eskaera ukanik ere.

Amaia Beyrie andereak "aurrekontu berdeari" buruzko xehetasunak eskatu ditu, ea aurrekontuan lerro berri bat sortu behar den. Galdetu du ere ea horrek engaiamendu karta bati erantzuten ote dion.

Auzapezak azaldu du "aurrekontu berdearen" xedea dela deskarbonatzean egiten diren ahaleginak neurtzea, inbertsioetan nola funtzionamenduan, besteak beste produktu biologikoak erosiz. Zehaztu du horren xedea gastuak aztertzea dela, bereziki inbertsioetan, baita ibilgailu-flota, elektrifikazioa, energia kontsumoa, eta abar. Ohartarazi du oraingoz programa hori ez dela indarrean, ez soilik M57arentzat, baizik eta herriaren izariarentzat. Amaia Beyrie andereak azken galdera egin du herriko forfaitaren berrikustez, zeinak lau urteko iraupena baitu, eta galdetu noiz hasten den lau urteko garai hori.

Auzapezak ihardetsi dio herriko forfaitaren berrikustea 2024/2025ean eginen dela, herriak erabaki arauaren arabera, hots lau urtero.

Eliane Aizpuru andereak informazio bat eman du: 2020 arte herriko forfaita 516 €koa zen, geroztik 573 €ra pasatu da, hots %11,05ko emendatzea.

Amaia Beyrie andereak ohartarazi du biziki berantean zirela, eta azpimarratu du zenbakiak modu desberdinean interpreta daitezkeela, baina 516 € da forfaitaren emendatzearen arrazoia.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du herriko forfaitaren zenbatekoa langileria-gastuei lotua dela. Gastuak txikiago orduan eta forfait apalagoa. Zehaztu du zenbateko hori eskolentzako gastuak oinarritzat hartuz finkatzen dela.

Auzapezak eztabaida hetsi du ohartaraziz biltzarkideek txostena ukan dutela, informazioa eman dela eta aurrekontu-norabideen txostena eztabaidatu dela.

– Bestelako gaiak:

Auzapezak adierazi du oposizioko taldeak, Nahi Dugun Herria, aitzineko saioan pausatu galderak aurkeztu dituela, zeinak berantean iritsi baitziren eta Peio Etxeleku jaunak ez duela galdera berriz egin.

Peio Etxeleku jaunak erran du ez zuela ulertu galdera birformulatu behar zuela.

Auzapeza Peio Etxeleku jaunari erantzuten hasi da, Suprefekturan sasoilarien aterpetzeari buruzko bilkuraz.

Azaldu du bilkura bat izan dela Suprefekturan Ezpeletako Biperra JDBko sasoilarien aterpetzea aipatzeko. Zehaztu du ezin izan duela bertan izan familian heriotza izan duelako, baina Suprefeta deitu duela horretaz hitz egiteko. Azpimarratu du administrazio-aginteak baduela borondatea biper ekoizleen laguntzeko, baina baita ere sasoilarien aterpetzeko zailtasunak dituzten beste sektore batzuk ere, nahiz eta denen sasoiak ez arras berak izan.

Suprefetak sasoilarien aterpetzeko arazoei ihardesteko zenbait aterabide irudikatu ditu, jardueren eta langileen aniztasuna kontuan hartuz. Horietan sartzen dira ostalaritza, hotelak, tabernak eta jatetxeak. Administrazioak begirunez aztertuko lituzke horien arazoak. Publiko diferenteak daudenez, administrazioak begirada desberdinak ukan ditzake, adibidez sasoilariak etxalde bakarrean edo etxalde zenbaitetan lanean ari badira. Honela, sasoilarien profilararen arabera proposamenak lantzen ari dira. Abian den ikerketaren ondorioak heldu den urterako izanen dira eskuragarri. Aurtengo, utzikierarik eta askatasun orokorrik izan gabe hirigintza eta laneko zuzenbidean, malgutze bat aurreikusten da arazo nagusiei aurre egiteko eta iazko isun handiak saihesteko.

Auzapezak adierazi du Nahi Dugun Herria taldeak zenbait galdera pausatu dituela.

- **«Hainbat udal langile joan direnez, jakin nahi genuke zein lanpostu hutsik dagoen, hots zerbitzuak nola berrantolatu diren».**

Auzapezak azaldu du GEUZeko eta Herriko Etxeko langile zenbait joan direla. GEUZari dagokionez, zuzendari baten kontratatzea bidean da, eta Herriko Etxeari dagokionez, bi pertsona kontratatzen ari dira giza baliabideen zerbitzurako. Herriko Etxeari dagokionez zehaztu du bi langileak kontratatuak direla. Giza baliabideetako zuzendariak abisu-epea badu betetzeko, orain arte Angeluko Herriko Etxean ari baita. Angeluko auzapezari galdegin dio prozedura arintzeko, baina ez du arraposturik ukan. Bigarren pertsonari dagokionez, giza baliabideetako ordea, abisu-epe laburragoa du, bi hilabetekoa, eta apiril erditsutan hasiko litzateke.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak gehitu du hiru langile berriak iritsi arte CDG64ko behin-behineko misioen zerbitzuari dei egin diotela. GEUZari dagokionez, pertsona bat eskura ezarri dute kontularitza eta soldata sarien egiteko. Herriko Etxearentzat, bi pertsona ezarriko dituzte: bat langileen txostenentzat eta bestea soldatentzat. Gehitu du martxoko soldatentzako herriko etxe barneko aterabide bat atzeman zutela.

- **«Zer balorazio egin dute martxo eta ekaina artean izan diren arkitektura eta hirigintza estudianteez? Seguruenik interesgarria izanen den emaitzaren beha gaude».**

Jean-Noël Magis jaunak adierazi du hirigintza batzorde bat deituko duela martxoaren 29an arratsaldeko 18etan. Bilkura hartan aurkeztuko du lanaren emaitza eta batzordekideekin solasteko aukera izanen dute.

Auzapezak Herri Biltzarkideek organoaren estreinaldirako mezarako ukan gomita izan du aipagai. Azaldu du, Frantziako Senatuko erantzunaren arabera, herriaren lurraldean gertatzen den ekitaldi bati buruzko informazioa ematea dela-eta, Auzapezak erlijio elizkizun bati buruzko informazioa eman dezakeela laikotasun printzipioa urratu gabe. Informazio hori Frantziako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko martxoaren 22an.

Xabier Heguy jaunak adierazi du komunikatzea gauza bat dela eta gomitatzea beste bat.

Auzapezak erantzun dio ez dela hitzekin jokatu behar.

- **«Etxebizitza hutsen gaineko zerga eta bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zergan emendatze baten egitea baimentzen duen dekretua Frantziako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko agorrilaren 26an. Kanbo neurri berri hori aplikatu dezaketen herrien multzoan sartzen da. Bizkitartean, 2023ko urriaren 1ean deliberatu behar genuen neurria 2024ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izan zedin. Baina ez dugu deialdirik ukan eta harrituak gara ez baituzu aukera hori baliatzen, etxebizitzaren eraberritzea eta etxebizitza hutsen okupatzea akuilatzeke baliagarria izan daitekeelarik. Eskertuko genizuke azaltzea zer arrazoirengatik gibelatzen den dekretu horren aplikazioa. Kanboko etxebizitza hutsen eta bigarren etxebizitzaren zenbakiak, eta zerga berrien aplikatzeak leharzkeen zenbatekoen estimazioa ematea eskertuko genizuke».**

Auzapezak zehaztu du gai horrek 2023ko agorrilaren 25eko dekretuari egiten diola erreferentzia. Dekretuak 2013ko beste dekretu batek zehaztu tentsiopeko eremua hedatu egiten du, hirigintza jarraikia baino ez baitzen kontuan hartzen lehen (<200 m herri baten barnean edo bi herriren artean).

Dagoeneko hirigintza jarraikiaren irizpidea ez da irizpide bakarra, zeren herri horietan dagoen etxebizitzarako sarbide zailtasuna ere kontuan hartzen baita.

Tentsio egoera definitzeko, bigarren etxebizitzaren tasa erabakigarria da orain.

Kanbon bigarren etxebizitzak %21 dira, eta ondorioz dekretu berriaren xedapenak aplikatu dakizkioke. Bi ondorio dituzte: etxebizitza hutsen gaineko zergaren aplikatzea (1) eta bigarren etxebizitzaren gaineko zerga emendatzeko aukera (2):

1) Etxebizitza hutsen zergaren aplikazioa.

Baina erraten duzuenaren kontrara, zerga horrentzako ez zen beharrezkoa 2023ko urriaren 1a baino lehen erabaki baten hartzea, zeren 2024ko urtarrilaren 1etik goiti automatikoki aplikatzen baita 11 herrietan, Kanbo barne, jadanik tentsiopeko eremuan sartuak zirenez gain.

Etxebizitza hutsen gaineko zerga %17koa da lehen urtean eta hutsik dagoen bigarren urtetik goiti %34ra pasatzen da.

Ondorioz, zuen oharrari eta galderari erantzunez, 2024an etxebizitza hutsen zerga azkarra izanen da eta jabeek interes gehiago izanen dute ondasun horiek alokairurako merkaturatzeko.

2) Bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zergako herriaren ekarpenaren emendatzea

Duen bigarren etxebizitza tasa altuarengatik gure herria tentsiopeko eremuan kokatzen da. Alta, %21eko tasa horretan sartzen dira, neurri handi batean, iraupen luzeko alokairuak (18 eta 21 egun artean), terma arten jarduerari loturik. Sailkapen fiskal horrek bigarren etxebizitzaren tasa artifizialki emendatzen du, eta Euskal Elkargoko fiskalitate eta zuzkidura zerbitzuko arduradunek horren inkoherentzia azpimarratu dute. Onartu dute gure herriko terma jarduerari loturiko interes publikoko alokairuak ezin daitezkeela espekulazio xedeko bigarren etxebizitza bezala kontatu.

Gainera, tentsiopeko eremuko herriek bigarren etxebizitzaren bizitegi zergaren herriko parte %5 eta %60 artean emenda dezakete. Kanbori dagokionez, gure jarrera oso argia da: ez dugu nahi kuristentzako aterpe multzoa ekonomikoki zigortu. Halere, Frantziako 2024ko finantza legeko 151 artikulua ematen duen bigarren etxebizitzaren gaineko zergaren emendatze berezia aplikatuko dugu, hots 0,839.

Euskal Elkargoko fiskalitate eta zuzkidura zerbitzuari gure berezitasunak azaldu dizkiogu eta haren erantzuna izan da BEBZari dagokionez deus ez egiteko, Departamenduko Finantza Publikoen Zuzendaritzaren zehaztasunen beha, 2023ko agorrilaren 25ean galdetu baitzion dekretuaren aplikatzeko modalitateak eman ditzan. Euskal Elkargoak zehaztu digu bilkura bat antolatuko dela 2024ko bigarren hiruhilekoan, alegia zerga zerbitzuen erantzuna ukan-eta.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak adierazi du herriak gaur egun 107 000 €ko isuna ordaintzen duela SRU legerari loturik, eta hori Kanboar guztiek ordaintzen dutela. Galdetu du zer irabazi izanen zuen herriak bigarren etxebizitzaren gaineko zerga ezarri izan balu.

Auzapezak erantzun dio bigarren etxebizitzaren gaineko zerga jadanik existitzen dela, tasa arruntean eta aurreikusitako emendatzea ezarriko zaiola. Ez da izanen %60ko emendatzerik.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak dio uste duela eremu horretako herri guztiek zerga emendatu dutela.

Auzapezak erantzun dio herri horiek guztiak ez direla terma herriak, eta Kanbo bakarra dela kasu horretan.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak erran du Senperek, Kanboren izariko herria, 120 000 € biltzen dituela zerga horri esker, eta gutxi zergapetutako irabaziak dituztenek dutela ordaintzen. Iradoki du zerga horrek SRU legeari datxikon 107 000 €ko isuna estal lezakeela. Oroitarazi du legearen helburua dela sasoiko etxebizitzak behin betiko etxebizitza bilakatzea, urteroko etxebizitza beharrei ihardesteko, Auzapezak berak usu azpimarratzen duen bezala.

Auzapezak begi onez hartu du Argitxu Hiriart-Urruty andereak diru kontuei eta isunaren konpentsazioari interesa erakusten baitie. Azpimarratu du isun horren konpentsatzeko beste baliabideak badirela, besteak beste aurreikusiak diren eraikuntza programak burura eramanez.

Diru kontuei buruzko arrazoibidean akats bat dagoela azpimarratu du, Senpere eta Kanbo alderatzerakoan. Termek ingurune osoan duten ekonomia-eragina agerian eman du, hots urtean 65 milioi euro inguru eta horietatik 7 Kanborentzat. Gehitu du kuristek eta haien laguntzaileek ez dutela soilik udako bi hilabeteetan kontsumitzen, baizik eta urteko 10 hilabetez. Oroitarazi du termetako eskaintzak kurista-aterpeen %15 baino ez duela egiten, horrekin azpimarratuz terma jarduerak herrian eta ingurukoetan duten ekonomia-ekarpen handia.

Amaia Beyrie andereak zehaztu du urte osoan zehar etxebizitza horietan biziko liratekeen jendeek ere kontsumituko luketela. Gehitu du arrazoibidea ikuspegiaren arabera dela, eta eskoletan izan dezaketen eragina nabarmendu du.

Auzapezak zalantza egin du Kanbora puntualki jiten diren 28 500 lagunek 65 milioi ekar dezaketela. Azpimarratu du biztanleria egonkor dagoela 6 772 biztanletan, etxebizitza eskasarengatik eta lurraldean etxebizitzak eskaintzeko ezintasunagatik. Nahiko luke legegileek argiki bereiz ditzaten sasoiko alokairuak eta terma jarduerari loturikoak. Proposatu du bereizketa hori deuseztatzea bere eragina neurtzeko eta sailkapen zehatzago bat sustatzeko.

Ondorioz, ez du zergak emendatzearen kontrako jarrera doktrinariorik. Bere asmoa da ekonomia-jarduera ez zigortzea eta kargak ahal bezain justuki banatzea.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du sasoiko alokairu ekonomikoak aipatzeak edozer gauzarentzako aitzakia izan daitekeela. Uste du hautetsiek hautuak egin behar dituztela eta zenbaitetan erabaki ausartak hartu.

Bere aburuz, kuristek eta zaharrentzako etxebizitzek ez dituzte eskolak betetzen.

Auzapezak berretsi du aterpe ekonomikoak eta osasun publikokoak kontuan hartzea izan dela beti bere jarrera, Kanboren ezaugarriak direlako. Bertaratu direnak eskertu ditu eta gau ona desiratu.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:45ean hetsi du.

Jean-Paul EYHERACHAR
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza